



Getxo  
**PUNTA  
BEGOÑA**  
Fundazioa

# **FUNDACIÓN PUNTA BEGOÑA FUNDAZIOA**

**JARDUKETA-PLANA  
(AURREKONTUAK)  
2026. URTEA**

## **AURKIBIDEA**

<b>ZIURTAGIRIA .....</b>	<b>  3</b>
<b>FUNDAZIOAREN DATUAK .....</b>	<b>  4</b>
AURREKARIAK .....	4
FUNDAZIOAREN ERAKETA ETA EZAUGARRIAK .....	8
XEDEA, IKUSPEGIA ETA BALIOAK .....	9
HELBURUAK .....	10
KUDEAKETA-ORGANOAK .....	11
<b>ILDO NAGUSIAK .....</b>	<b>  12</b>
JARDUKETA-PLANAREN ILDO NAGUSIAK.....	12
HELBURUAK.....	13
GASTUAK.....	14
DIRU-SARRERAK .....	15
INBERTSIOAK .....	15
<b>PERTSONA, ERAKUNDE EDO KOLEKTIBO ONURADUNAK .....</b>	<b>  16</b>
<b>2026RAKO AURREIKUSITAKO JARDUERA-PLANA.....</b>	<b>  17</b>
JARDUERA-PLANA .....	17
JARDUERA BAKOITZAREN GARAPENA .....	17
BALIABIDE EKONOMIKOEN AURREIKUSPENA .....	21
<b>2026KO AURREKONTUAREN MEMORIA .....</b>	<b>  23</b>
GASTUAK .....	25
DIRU-SARRERAK .....	26
<b>2026RAKO AURREIKUSITAKO EMAITZEN KONTUA .....</b>	<b>  28</b>
<b>2026RAKO AURREIKUSITAKO EGOERAREN BALANTZEA .....</b>	<b>  29</b>



IGNACIO JAVIER ETXEBARRIA  
ETXEITA, PUNTA BEGOÑA  
FUNDAZIOKO IDAZKARI  
NAGUSIAK

IGNACIO JAVIER ETXEBARRIA  
ETXEITA, SECRETARIO  
GENERAL DE LA FUNDACIÓN  
PUNTA BEGOÑA

ZIURTATZEN DUT: Punta Begoña  
Fundazioko Patronatuak, 2025ko  
abenduaren 2an egindako ohiko  
bileran, besteak beste, honako hau  
erabaki duela:

CERTIFICO: Que el Patronato de la  
Fundación Punta Begoña, en sesión  
ordinaria celebrada el día 2 de  
diciembre de 2025, adoptó, entre  
otros, el siguiente acuerdo:

**3. PUNTA BEGOÑA  
FUNDAZIOAREN 2026.  
URTERAKO JARDUERA-PLANA  
ETA AURREKONTUA AZALDU  
ETA ONARTZEA.**

**3. EXPOSICIÓN Y APROBACIÓN  
DEL PLAN DE ACTUACIÓN Y DEL  
PRESUPUESTO DE LA  
FUNDACIÓN PUNTA BEGOÑA  
PARA EL EJERCICIO 2026.**

Gerenteak jarduera-planaren berri  
eman du. Plan horretan, diruz  
lagundutako obrak egiteko  
aurreikuspena nabarmentzen da,  
udalek ere finantzatzen baitituzte,  
bai eta Galeako gotorlekuan egin  
beharreko jarduerak ere.

La Gerente informa sobre el plan de  
actuación en el que destaca la  
previsión de realización de las obras  
subvencionadas que cuentan  
también con financiación municipal,  
así como de las actuaciones a  
realizar en el Fuerte de la Galea.

Jarduera Planak 726.801,04 €-ko  
gastu bolumena jasotzen du  
2026rako, eta horietatik 530.226 €  
udalaren ekarpenari dagozkio.

El Plan de actuación incorpora un  
volumen de gastos para 2026 de  
726.801,04 € de los que 530.226 €  
corresponden a la aportación  
municipal.

Gainera, kontuan hartu behar da  
769.036,51 €-ko obrak egin direla,  
Etxebizitza eta Hiri Agenda  
Ministerioak emandako eta  
Udalaren bidez bideratutako diru-  
laguntzari dagozkionak.

Además hay que tener en cuenta  
una ejecución de obras por importe  
de 769.036,51€ correspondientes a  
la subvención otorgada por el  
Ministerio de Vivienda y Agenda  
Urbana y que se canaliza a través  
del Ayuntamiento.



Patronatuak, Amaia Aguirre, Ignacio Uriarte, Juanma González eta Mikel Bildosola eta Gonzalo Zorrilla-Lequericaren abstentzioekin, Punta Begoña Fundazioaren 2026ko ekitaldirako jardura plana eta aurrekontua onartu ditu.

***Eta horrela jasota geratzeko eta dagozkion ondorioak izateko, Akta oraindik ez dela onartu ohartarazita, ziurtapen hau egin, eta Punta Begoña Fundazioko lehendakariak.***

El Patronato con los votos favorables de Amaia Aguirre, Ignacio Uriarte, Juanma González y con las abstenciones de Mikel Bildosola y Gonzalo Zorrilla-Lequerica aprueba el Plan de actuación y del presupuesto de la Fundación Punta Begoña para el ejercicio 2026.

***Y para que conste y surta efectos, y con la advertencia de que el Acta todavía no ha sido aprobada, expidola presente certificación, que visada por la Presidenta de la Fundación, firmo en Getxo.***

Sinatuta/ Firmado

IGNACIO JAVIER ETXEBARRIA ETXEITA - 14946003M  
2025.12.15 09:38:18 +01:00  
Secretario / Secretario

Sinatuta/ Firmado

AMAIA AGUIRRE MUÑOZA - 44155313M  
2025.12.15 16:07:29 +01:00  
Alkatea / Alcaldesa



## FUNDAZIOAREN DATUAK

<b>SOZIJETATE-IZENA:</b>	FUNDACIÓN PUNTA BEGOÑA PUNTA BEGOÑA FUNDAZIOA
<b>I.F.K.</b>	G 018 297 38
<b>HELBIDEA:</b>	Foruak kalea, 1 – 48992 GETXO (BIZKAIA)
<b>ERREGISTRO-DATUAK:</b>	Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren 2020ko abenduaren 29ko Aginduaren bidez inskribatu zen Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan, <b>F-463</b> zenbakiarekin.
<b>JARDUERA:</b>	Higiezinaren eraikuntza osoa, konponketa eta kontserbazioa (EJZren epigrafea: 150110)

## AURREKARIAK

Punta Begoña Fundazioa sortu da *Getxoko Punta Begoña Galeriak berreskuratzeko eta haien balioa nabarmentzeko proiektua* abian egon den urteetan lortutako jakindurian eta ezagutzan oinarrituta. Bizkaiko udalerrri honetako kostaldean balio ukaezina duen ondare-ondasuna da, eta euskal kostaldeko XX. mende hasierako eraikin berezietakoa.

Hamarkadetan zehar, monumentuari funtzio berri bat emateko ahaleginek ez zuten emaitza onik lortu, eta horrela, mantentze- eta erabilera-faltak eraikuntza hondatu zuten, gordetzen dituen kultura-balioak arriskuan jarri.

Hala ere, eraikinari erabilgarritasuna itzultzeko proposamen horien ondorioz, perspektiba aldatu zen, eztabaidagarriak izan litezkeen irizpideen arabera

eraldaketak sustatzeko arriskuari aurre egiteko ziurrenik. Horregatik, proiektu bat jarri zen abian, non eraikinaren berreskuratze formala ez zen helburu bakarra, baizik eta honako hauek lortzeko baliatu beharreko prozesu bat:

- Monumentua balorizatzea,
- Gizartea bere ondareari buruz sentsibilizatzea,
- Udal-prestigioaren irudia indartzea, ondarea berreskuratzeko jardunbide egokiaren aldeko konpromisotik sortutako proiektu baten bidez,
- Espazio abandonatu bat kultur leku erreferentziala, bizia eta partekatua bihurtzea,
- Eta, horren ondorioz, jarduera sozioekonomikoa sortzea, iraunkortasun-irizpideetatik abiatuta, toki- eta lurralde-garapena sustatzeko.

Horrekin guztiarekin, 2014ko martxoan, **Esparru-Hitzarmena sinatu zuten Bizkaiko Foru Aldundiak, Euskal Herriko Unibertsitateak eta Getxoko Udalak**, azken erakunde horren jabetzako Begoña lurmuturreko galeriak izeneko higiezinari balioa emateko ildo nagusiak ezartzeko.

2014ko urriaren 13an, Euskal Herriko Unibertsitateak eta Getxoko Udalak lankidetzahitzarmen bat sinatu zuten, 2014-2015 aldian egin beharreko jarduerak, bitarteko pertsonalak eta materialak eta alderdien konpromiso ekonomikoak zehazteko. Hitzarmen hori beste bi aldiz berritu zen lanek aurrera egin ahala. Lankidetzahitzarmen horietako azkenekoan eratu zen Punta Begoña Fundazioa, jarduera horiek eta estatutuetan jasotako beste batzuk garatzeko eta kudeatzeko tresna gisa.

Denbora horretan, *Punta Begoña Galeriak zaharberritzeko eta balioztatze proiektua* Euskadi 2020 Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planaren barruan **Euskadirentzat enblematikoak diren 50 proiektu eta ekimenetako** bat dela aitortu da, "Gaitasun berriak sortzeagatik etorkizun handiena duten zientzia- eta teknologia-arloetan, ekoizpen-eragileekin sinergia argiak daudenean eta itzulkin ekonomiko eta sozial handiagoak lor daitezkeenean".

2018an, *Espainiako Arkitektura eta Hirigintza Bienalak* Punta Begoñako Zaharberritze Irekia hautatu zuen **Estatuko proiektu arkitektoniko nagusien** artean finalista gisa, "Arkitekturari aplikatutako ikerketagatik eta gizarteari zabaltzeko, erregistratzeko eta transferitzeko ereduagatik, zaharberritze irekiaren prozesu globala osatzen duten euskarri digitalen bidez".

2019an, gizarteari ezagutza transferitzeko unibertsitate-eredu gisa hautatu zuten proiektua Salamancako Unibertsitateko *Zientzia eta Teknologia Ikasketen Unibertsitate Institutuak*, Madrilgo Unibertsitate Konplutentseko *CIT Ikasketen Institutuak* eta Valentziako Unibertsitate Politeknikoko *Ingenio Institutuak*.

2021ean, Punta Begoña Fundazioa abian zela, eta monumentua berreskuratzeko eta balioztatzeko proiektua kudeatzeko ardura zuela, **2021-2022, 2022-2023 eta**

**Punta Begoña Galeriak proiektua finalista izan zen Arkitektura eta Hirigintzako XIV. Bienalean, hiriko eta paisaiako kultura arkitektonikoaren aurrerapenari eta ezagutzari egindako ekarpenagatik, prozesua sormenezko eta kalitatezko euskarri baten bidez zabalduz, ibilbide horretan gizarte-balioei lehentasuna emanez.**

**2023-2024 Hiria birgaitzeko eta berroneratzeko RERU Masterrean sartu zen, ikerketa eta jardunbide egokien kasu gisa, Bilbao Ría 2000 hiri-**

kudeaketako proiektuarekin batera, "Obretan eta Irekita" ondare-kudeaketako ereduaren aplikazio paradigmatico eta integralagatik, hiri jasangarria eratzeko motor gisa. Hori guztia Consell eta Valentziako Etxebizitza eta Arkitektura Bioklimatikoko Kontseilaritzaren 2. lehendakariordetzaren Hiria birgaitzeko eta berroneratzeko Estrategiaren esparruan.

Bestalde, 2022an, Fundazioak bere jardueraren garapenean hartutako konpromisoak indartu ziren, eta, horren ondorioz, Punta Begoña Galeriak berreskuratzeko eta balioesteko proiektua **Euskadiko Turismoaren Kode Etikoan sartu zen**, Eusko Jaurlaritzaren balorazioa jarraia jaso ondoren, eta **Foru Aldundiak Bizkaiko baliabide estrategikotzat onartu zuen**.

Ondorioz, 2023an, Punta Begoña Fundazioak egiaztapen-prozesu baten mende jarri zuen bere jarduera, eta prozesu horren emaitza **SGS International Certification Services munduko enpresa liderraren ziurtagiria izan zen, Garapen Iraunkorreko Helburuak benetan lortzen egindako lanagatik**. Punta Begoña, bere Fundazioaren bitartez, horrelako ziurtagiri bat lortu duen kultura-ondarearen lehen proiektuetako bat izan da, bere kudeaketa integrala benetako garapen-motorra izan daitekeela erakutsiz.

**Euskadiko Irrati eta Telebistako Profesionalen Elkarteak "2023ko albiste ontzat"** jo zuen albiste hori, gizarteari ematen dion balioagatik, herritarrek monumentuan egiten diren jarduera soziokulturaleran, prestakuntza-programetan edo bisita gidatuetan izan duten parte-hartze handiagatik.

2024a orain arte egindako urratsak sendotzen zentratutako urtea izan zen; bide horrek monumentua sozializatzeko eta erabilera soziokulturalerako urteko programa egonkortzea ekarri zuen, baita, horren ondorioz, Getxoko biztanleek **Punta Begoña proiektua udalerriko ezagunena dela** aitortzea ere (Ikerfel enpresak 2023an egindako kanpo-inkestaren arabera).

Urte berean, inpaktu handiko jarduerak jarri ziren abian kultura-ondarea sozializatzeko eta ondare horrekiko gizarte-sentsibilizazioa bultzatzeko: zenbait erakusketa, aurkezpen, antzerki, musika-emanaldi... antolatzeaz gain, **Irrati eta Ondarearen Zikloaren lehen edizioa** ere egin zen, **Punta Begoña, Zuzenean, Ondarearen Europako Kontseiluaren programa ofizialean txertatua** eta Euskadiko Irrati eta Telebistako Profesionalen Elkarteak saritua.

2025. urtea funtsezkoa izan da definitzeko Punta Begoña Galeriak monumentua eta La Galeako Gotorlekua eta Itsasargia berreskuratzeko prozesua (biak Fundazioaren aldeko erabilera-lagapenean).

Galeriei dagokienez, Patronatuaren aurrean aurkeztutako **Obra Plana** definitu eta iritzi publikoaren esku jarri da, bisita gidatuen edukiekin bat eginez eta eraikinaren espazio adierazgarrietakoan ikusgai jarritz. Lortutako balorazioei esker, zehaztu ahal izango da Punta Begoñaren aprobetxamendu sozial handiena lortzeko diseinatutako plangintza, eta, aldi berean, aurrera egingo da errekonstruzio fisikoan.

Aldi berean, herritarrek egindako eskaerei erantzun zaie, monumenturako bisitak benetan esperientzia murgiltzailea, ludikoa eta didaktikoa izan daitezten, jarduketaren oinarri den ikerketaren zorrotasunetik abiatuta. Egindako lanen artean, transmedia proiektuaren lehen fasea ezartzeak, «Bidaiatu historian zehar Punta Begoñatik» izenekoak («Punta Begoña Zuzenean irrati eta ondarearen zikloaren» bigarren edizioarekin batera), merezi izan du **Sintran (Portugal) 2025ean garatutako AR-PA Iberiar Ondarearen Biurtekoaren esparruan antolatutako Ondarearen Iberiar Sarietan ondarearen komunikazio-estrategia onenaren finalista izatea.**

Bitartean, jarduera soziokulturala areagotu egin da espazioan, eta beste erakunde eta instituzio batzuekin hitzartutako lankidetzak lortu da, ekintza bateratuak egiteko edo Punta Begoña bere programazioetan egoitza edo mugarri kultural gisa sartzeko. Horren adibide dira, besteak beste, **Itsasmuseum Bilbaorekin izandako lankidetzak «10 urteko artea edukiontzietan» erakusketan, GetxoPhoto Nazioarteko Irudi Jaialdiarekin eta Arkitekturako eta Hirigintzako OPEN Jaialdiarekin.**

**Galeako Gotorlekuari eta Itsasargiari** dagokienez, monumentua bisitatzeko herritarren eskariak – 2025eko Aurrekontu Parte-hartzaileetan sartu izanak agerian utzi du eskari hori – enklabe horren gaineko lehen jarduketa-lanak bultzatu ditu, ezinbestekoak baitira haren egoeraren hasierako balorazioa egiteko eta etorkizuneko ekintzetarako eta esku-hartzerako estrategiak proposatzeko.

Bien bitartean, 2025 urte erabakigarria izan da Punta Begoña Fundazioaren kudeaketa orokorrean; izan ere, egokitzapen- eta ikuskapen-lan handia egin ondoren, AENOREk emandako **Turismo Enpresa Adimendunaren Ziurtagiri**

aitzindaria lortu du, Basquetourren bultzadari eta euskarriari esker. Ziurtagiri horrek iraunkortasuna, gardentasuna, irisgarritasuna, efizientzia, aplikazio teknologikoa eta berrikuntza oinarri hartuta lan egiteko Fundazioaren ahalegina baliozkotzen du.

Proiektuaren aurrerapenarekin batera, aplikatutako eredu berritzailearen aintzatespen horiek lortzearekin eta haren irekitasuna eta irisgarritasun publikoa sustatuko zituen jarduera soziokulturala sortzearekin batera, hainbat erakunde publikoren konfiantza lortu zen, eta erakunde horien ekarpenak Getxoko Udalak egindako inbertsioaren kostua minimizatzea ahalbidetu zuen. Horrela, bai **Bizkaiko Foru Aldundiak** (dirulaguntza irekien edo izendunen bidez), bai **Eusko Jaurlaritzako** Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (euskal kultura-ondarea balioesteko eta hedatzeko dirulaguntzen linearen bidez), bai Espainiako Gobernuak **Sustapen Ministerioak** -egungo Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agenda Ministerioak- (1,5% Kultura Programaren bidez) parte hartzen dute Punta Begoña Galeriak berreskuratu eta balioesteko **egiten diren jardueren finantzaketan**.

## FUNDAZIOAREN ERAKETA ETA EZAUGARRIAK

2020ko martxoaren 12an, Getxoko Udalak egungo erakunde juridikoa eratu zuen, **Fundación Punta Begoña** izeneko, euskaraz **Punta Begoña Fundazioa** izena duena.

Fundazio horrek nortasun juridiko propioa, independentzia eta gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun osoa ditu, fundatzaileen borondate-adierazpenean, fundazioaren estatutuetan eta, bereziki, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legean ezarritakoez gain, beste mugarik gabe.

Fundazioaren zuzkidura 30.000 eurokoa izan zen, eta haren ekarpena egin da Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legearen 12. artikuluaaren bigarren apartatuaren arabera, honela:

- Getxoko Udalaren 12.337,85 €-ko diru-sarreraren bidez.
- Getxoko Udalak gainerako diru-kopurua sartuta.

Eratzeko, erakundeak giza baliabideez zein baliabide tekniko eta finantzarioez hornitu zuen, eta hainbat udal-higiezin erabiltzeko eskubidea laga zion, hau da, Punta Begoña Galeriak eta La Galeako Faro Zaharra eta Gotorlekua, biak mugagabeak.

Fundazioak Getxon garatzen du nagusiki bere jarduera, baina Euskal Autonomia Erkidegoan zabal daitekeela aurreikusten du.

Fundazioa Getxoko Udaletik eta beste erakunde batzuetatik jasotzen dituen dirulaguntzen bidez finantzatzen da. Eta proiektu zehatzetarako laguntzen eta dirulaguntzen programen bidez. Horri, bisitarien sarreren salmentatik, erakusketetatik eta bertan ospatzen diren ekitaldietatik ateratzen den dirua gehitu behar zaio. Diru-sarrera hauei, eskuratutako ezagutza teknikoa transferitzeko zerbitzuak ematek fundaziotik kanpoko operadoreek beste toki batzuetan garatzen dituzten antzeko proiektuetatik eratorritakoak gehitzen zaizkio.

Gainera, etorkizunerako aurreikuspen gisa, finantzaketa hori handitu egingo da honako hauen bidez:

- enpresa lagun eta laguntzaileek eta/edo partikularrek egindako ekarpenak,
- beste erakunde edo pertsona fisiko edo juridiko batzuetatik jasotako kudeaketa- eta garapen-mandatuen zerbitzuak ematea.

## XEDEA, IKUSPEGIA ETA BALIOAK.

### XEDEA

Garapen iraunkorrari, kualitatiboari, ekonomikoari eta sozialari laguntzea, herritar guztien onurarako, ondare-ondasunen defentsa eta kontserbazioa komunitatearen plangintza- eta kudeaketa-prozesuetan integratuz, eta horiek atzeraka doazen eremuak indartzeko, lurraldeen arteko sinergia produktiboak sortzeko eta gizarte-kohesioa eta -berrikuntza sustatzeko gai den baliabidetzat hartuz.

### IKUSPEGIA

Erreferentziazko erakunde bihurtzea ondarearen kudeaketa integralean, non esku-hartzea ez baita jada helburua, bitarteko etapa baizik askoz ere prozesu zabalago batean, non **kultura-ondasunak bere biografiaren mugarri garrantzitsu gisa eta garapen ekonomiko eta sozialerako baliabide gisa aitortzen dituen herriaren memoriaren gordailu baitira.**

## BALIOAK

- **Kalitatearen eta bikaintasunaren aldeko konpromisoa** abian jarritako jarduera bakoitzean.
- Onuradunei fundazioaren helburuen arabera **zerbitzua emateko espirtua**, interes horiek lehenetsiz norberaren edo partikularren interesen aurretik.
- **Ezagutza transferitzea** lurraldeak bultzatzeko eta garatzeko, egindako inbertsio publikoaren itzulkin sozial eta ekonomikoa sortuz.
- **Jokabide-kodeetan eta jardunbide egokietan** oinarritutako jarduera sustatzea.
- **Publizitatea eta gardentasuna** helburuetan eta jardueretan.
- **Inpartzialtasuna eta diskriminaziorik eza** onuradunak zehaztean eta jarduerak eta prestazioak garatzean.
- **Genero-berdintasuna** sustatzea.
- Fundazioaren ondarea eta errentak fundazioaren helburuetara bideratzeko betebeharra benetan bete dadin defendatzea eta babestea, fundazioaren estatutuetan eta indarrean dagoen araudian aurreikusitakoaren arabera.
- **Lankidetz**a leial eta iraunkorra Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzarekin.

## HELBURUAK

Horrela, eta estatutuetako hirugarren artikuluan jasotakoaren arabera, Punta Begoña Fundazioak bere helburutzat hartzen ditu honako hauek:

- 1| **Getxoko udalerraren ondare eta aberastasun historiko-artistikoa aztertzea eta ikertzea**, Punta Begoña osoari arreta berezia eskainiz.
- 2| **Getxoko udalerraren ondare historiko-artistikoa** osatzen duten ondasun bereziak **zaintzeko, kontserbatzeko, mantentzeko, birgaitzeko eta zaharberritzeko eta balioa nabarmentzeko** jarduketa zehatzak egin behar dira, batez ere multzo osokoak, Punta Begoña osoari arreta berezia jarrita.

- 3| **Punta Begoñaren multzoa duen potentziala identifikatzeko jarduera jasagarrien** garapena sustatzea.
- 4| **Herritarren harrotasuna kontzientziazten eta sustatzen** laguntzea, Punta Begoñaren balio historiko-artistikoari eta **Getxoko udalerrriaren kultura-ondareari** dagokienez, oro har.
- 5| **Ondarea kudeatzeko eredu bat egituratzea, udalerrriaren aintzatespen-eta nortasun-elementu bihurtuko dena, eta haren aplikazioa kanpoko proiektuetara transferitzea ahalbidetuko duena, egindako inbertsio publikoaren itzulkin sozial eta ekonomikoa sortuz.**

## KUDEAKETA-ORGANOA

Patronatua fundazioaren gobernu- eta ordezkaritza-organo gorenena da, eta fundazioaren helburuak betetzeko beharrezkoak diren ahalmen guztiak ditu. Egun, honako hauek osatzen dute Patronatua:

Lehendakaria: Amaia Agirre Muñoa andrea, Getxoko Udaleko alkatea.

Patronatukideak: Ignacio Uriarte Gorostiaga jauna, EAJ-PNV udal talde politikoaren izenean.

Gonzalo Zorrilla-Lequerica Pañeda jauna, PARTIDO POPULAR udal talde politikokoa.

Mikel Bildosola Agirregomezkorta jauna, EH BILDU udal talde politikokoa.

Juanma González Mosquera jauna, TALDE SOZIALISTA udal talde politikoaren izenean.

Xabier Benito Ziluaga jauna, ELKARREKIN udal talde politikokoa.

Bestalde, Punta Begoña Fundazioaren diruzaintzaren ardura Cristina Bilbao Salterain andrearena da, Getxoko Udaleko diruzainarena. Idazkaria Ignacio Javier Etxebarria Etxeita jauna da, Getxoko Udaleko idazkaria.

Fundazioaren ohiko kudeaketa María Peraita Tajadura zuzendari andreari dagokio.

## ILDO NAGUSIAK

### 2026 JARDUKETA-PLANAREN ILDO NAGUSIAK

Jarduera-plan hau 2021tik lortutako esperientzia oinarri hartuta egin da. Batez ere Punta Begoña Fundazioaren jardueren potentzialtasunari dagokionez

Aldi horretan erdietsitako mugarriak ikusita, Punta Begoña Fundazioak garapen sozial eta ekonomiko iraunkorra sortzeko duen gaitasunaren ebidentziatzat hartuta, baina, batez ere, bere jardueraren bidez itzulera horiek areagotzeko irekitzen diren aukerak ikusita, Jarduera-plan bat planteatzen da, honako premisa hauetatik abiatuta:

- Punta Begoña Fundazioa pixkanaka sendotzea, ondare historiko kulturalaren arloko erreferentziazko erakunde sendo gisa, bere estatutu-helburuak lortzera bideratutako jarduera gero eta ugariagoen bidez;
- Bere jardueraren garapenean aurrera egitea, Punta Begoña Fundazioak 2030 Hiri Agendan (zehazki, ODS4) ezarritako Garapen Iraunkorreko Helburuak lortzen egindako ekarpenari buruzko kanpo-ziurtagiria lortzeko esparruan identifikatutako adierazleen arabera. Zehazki ODS4, Kalitatezko hezkuntza, ODS5. Genero-berdintasuna, ODS7. Energia eskuragarria eta ez-kutsatzailea, ODS9. Industria, berrikuntza eta azpiegitura, ODS11. Hiri eta komunitate iraunkorrak, ODS16. Bakea, justizia eta erakunde sendoak;
- Punta Begoñako Galerien monumentua berreskuratzeko eta balioa emateko proiektuarekin jarraitzea, plangintzaren arabera ondorengo esku-hartze faseak garatuz ondare-lekuaren irekiera soziala areagotuz, horrela sorkuntza-, berrikuntza-, erakusketa- eta prestakuntza-eremu kolektibo bat gauzatu ahal izateko.
- Galeako Gotorlekua eta Itsasargia berreskuratze- eta birgaitze-proiektuari ekitea, Getxoko Udalaren 2025erako aurrekontu parte-hartzaileei lotutako jarduketan esparruan hasitako lanetatik abiatuta, haren gizarte-aprobetxamendurako egin beharreko urratsak definitzeko;
- Punta Begoña Fundazioaren jarduerak garatzeko behar den udal-inbertsioa minimizatzea, beste erakunde publiko edo pribatu batzuk proiektuan inplikaturik, bai eta sinatu ahal diren balizko hitzaremnak, laguntzak, dirulaguntzak eta ekarpenak egoki gauzatu.

Horren arabera, 2026a sendotzearen hirugarren urtea izango da, eta nahitaez Punta Begoña Fundazioaren jarduera handiagoa ekarriko du, batez ere Punta Begoña

Galeriak monumentuaren gaineko esku-hartzeari dagokionez – Obra Planean ezarritakoaren arabera – eta erabilera lagata duten ondare-ondasunen plangintza estrategikoari dagokionez. Helburu hori lortzea ezinezkoa izango litzateke, fundazioari finantzaketarako behar duen ahalmen ekonomikoa eman ezean.

Aurrekontua finantza-orekaren printzipioei jarraituz egin da, eta, finantza- eta ekonomia-arloei dagokienez, adierazten du urtean zehar egitea aurreikusitako ekintzen multzoa.

Aurreikusitako baliabide ekonomikoak eta giza-baliabideak jasotzen ditu, bai eta burutuko den jarduera-programa garatzeko erabili beharrekoak ere, bai eta lortu nahi den bisitari edo erabiltzaile kopurua eta sortu nahi den jarduera ere.

## HELBURUAK

2026ko Jarduera Planak 2025ean ezarritako helburu orokorrak eta espezifikoak mantentzen eta osatzen ditu, Fundazioaren jardueran helburu desiragarritzat hartzen baitira epe luzera. Hau da:

- *Helburu orokorra:* Punta Begoña Galeriak eta Galeako Gotorlekua eta Isasargia monumentuek osatzen duten **espazioen erabilera publikoa handitzea**.
  - Punta Begoña Galerien monumentuaren berreskuratze fisikoa, Obra Planean ezarritakoaren arabera.
  - Galeako Gotorlekuaren eta Itsasargiaren egoera ebaluatzea eta haiek bisitatzea ahalbidetuko duten segurtasun-neurriak ezartzea.
  - Punta Begoña Galerien eta La Galeako Gotorlekuaren eta Itsasargiaren erabileren kudeaketa egituratzea, Hiri Agenda Berria eta UNESCOn kultura-ondarearen tratamenduan oinarritutako jasangarritasun-irizpideen arabera.
- *Helburu orokorra:* Punta Begoña Galeriak **Bizkaiko baliabide turistiko gisa sendotzea**.
  - Punta Begoña Fundazioak ondarea gizarteratzeko kudeatzen duen programa egonkortzea eta etengabe egokitzea.
  - Kultura-, prestakuntza- eta turismo-esperientzia hobetzeko tresna berritzaileak sartzeari, herritarrak beren kultura-ondarearekiko sentsibilizatzen lagunduko duen baliabide gisa.
  - Fundazioaren jardueraren kalitatea ebaluatzea, bere estatutu-helburuak lortzeari dagokionez, eta kanpo-contrastea egitea, lurraldearen turismo-panoramaren barruan hobekuntza eta bikaintasuna lortzeko.

- *Helburu orokorra:* Punta Begoña Fundazioak kudeatutako ondasunek **udalaz gaindiko posizionamendua** izatea, lurraldean ondare jasangarria kudeatzen duen erakunde gisa.
  - Punta Begoña sendotzea baliabide eta proiektu estrategiko gisa Bilbo-Itsasadarra ardatzean, tokiko eta lurraldeko garapen sozioekonomikoa sustatzen, lekuaren memoria kulturaletik abiatuta lurralde-identitatea elkarrekin eraikitzen eta bertako kultura-ondarearekiko gizarte-sentsibilizazioa bultzatzen laguntzeko.
  - Punta Begoña Fundazioa nabarmentzea, erreferentziako erakunde gisa ondare-kudeaketa jasangarrian, Garapen Iraunkorreko Helburuak lortzen laguntzeko bere jardueraren konpromisotik abiatuta.

## GASTUAK

Gastuak kuantifikatzeko, honako hauek hartu dira kontuan:

- fundazioko langileengandik datozenak;
- fundazioaren finantza- eta administrazio-kudeaketa egokirako beharrezkoak direnak;
- fundazioak lagatako erabilera duen ondarea mantentzeko eta kontserbatzeko gastuak, bai eta irekitzeko eta erabilera publikorako beharrezkoak direnak ere;
- aipatutako ondarearen funtzionamendu egokirako eta zerbitzurako oinarrizko hornidura-gastuak;
- jarduera-arloetako giza baliabideen beharrianak estaltzeko enpresa pribatuekin egindako kontratuetatik eratorritakoak; eta ondare historikoa ezagutzera emateko eta balioan jartzeko martxan jarritako proiektuak garatzeko ere.

Era berean, fundazioaren estatutuetako helburuei erantzuteko planifikatutako jardueren kostuen zenbatespena egin da, zehazki, Getxoko kultura-ondarearen zabalkundea eta gizarteratzea eta Punta Begoña galeriak berreskuratzea. Horrela hartu da kontuan:

- Punta Begoña Galerietara bisita gidatuak egiteko programa;
- Getxoko ondarearen balioak sustatzeko kultur jarduerak (hitzaldiak, erakusketak, jardunaldi zientifikoak, teknikoak eta/edo artistikoak, etab.);
- Ondare horren balioak eta Punta Begoña Fundazioak egindako jarduera hobeto ezagutzeko zabalkunde-ekintza zehatzak.

## DIRU-SARRERAK

Diru-sarreraren aurreikuspena egiteko, finantziazioa hainbat bidetatik erakartzea hartu da kontuan: erakunde sortzailatik kanpoko dirulaguntzetatik (hainbat laguntza-programatarako proiektuak eta hautagaitzak eginez edo lor daitezkeen dirulaguntza izendunen bidez), eragile publiko eta/edo pribatuekiko laguntzeko edo zerbitzuak emateko hitzarmenetatik, eta monumentuen erabilerarako eta sozializatorako ekintzetan bildutako sarreretatik.

Bestalde, esan gabe doa diru-sarreraren aurreikuspen horretan erabakigarria dela erakunde sortzaileak emandako laguntza eta Punta Begoña Fundazioaren jarduera diruz laguntzeko konpromisoa, abian jartzeko behar den guztian.

Azkenik, eta urtean zehar, jardueren ondoriozko diru-sarrerak handitzea eta finantzaketa-iturri publiko eta pribatu berriak erakartzea helburu duten neurriak hartuko dira.

## INBERTSIOAK

Aurrekontuak jasotzen dituen inbertsioak bideragarritasun ekonomikoaren arabera zehaztu dira, eta, horretarako, kontuan hartu da Getxoko Udaletik kanpoko erakundeek edo entitateek eman ditzaketen dirulaguntzen aurreikuspena, erakunde horrek emandakoaz gain, nagusiki Eusko Jaurlaritzatik etorritakoak.

## PERTSONA, ERAKUNDE EDO KOLEKTIBO ONURADUNAK

UNESCOK<sup>1</sup> aitortzen duenez, ondareak izaera kolektiboa du berez, gizarte garaikideen kapital kulturala baita. Nazioartean erreferentzia den erakunde horrek jasotzen duenez, kultura-ondareak kulturen eta nortasunen etengabeko balioa handitzen laguntzen du, eta, horrez gain, belaunaldien artean esperientziak, gaitasunak eta ezagutzak transmititzeko bide garrantzitsua da. Gainera, sormenerako eta berrikuntzarako inspirazio-iturri da, eta, aldi berean, kultura-aniztasuna eskuratzea eta gozatzea sustatzen du. Horri kapital soziala aberasteko duen potentziala gehitzen zaio, norbanakoaren eta taldearen parte izatearen zentzua eratuz, zeinak gizarte- eta lurralde-kohesioari eusten laguntzen dion. Horri gehitu behar zaio duen garrantzi ekonomikoa, bereziki sektore turistikoarentzat, hura kontserbatzeko erronka berriak sortzekotan.

Punta Begoña Fundazioak kultura-ondarea garatzea du helburu Getxokoa eta, oro har, EAEkoa, eta, horregatik, bere xedea lortzekotan garatzen dituen jarduerak **Getxoko udalerriko eta EAEko herritar guztien onerako izango dira**, bai eta ondare historiko-artistikoa kontserbatzea eta ondare horren kudeaketa bere funtzio sozialaren irizpidearen arabera garatzea lehentasunezko zat jotzen duten pertsona guztien onerako ere.

Prozesuak optimizatzeko eta borondate hori betetzen dela bermatzeko, Punta Begoña Fundazioak kudeaketa egokia egiteko behar den informazioa biltzen du interes-taldeen erregistroan, honako hauek barne: identifikazioa, sailkapena, lehenespena, jarduteko gakoaren definizioa, balioespena eta hobekuntza.

---

<sup>1</sup> UNESCO. Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundea.

## 2026RAKO AURREIKUSITAKO JARDUERA-PLANA

Dokumentu honetan, Punta Begoña Fundazioak 2026. urtean egitea aurreikusten diren jarduera nagusien laburpena jasotzen da:

- 1| GETXOKO ONDAREAREN AZTERKETAK
- 2| GETXOKO ONDAREA KONTSERBATZEA
- 3| KULTUR EKINTZA
- 4| PROIEKTUAK GARATZEKO BULEGOA
- 5| ZERBITZU KOMUNAK

### JARDUERA BAKOITZAREN GARAPENA

#### 1| GETXOKO ONDAREAREN AZTERKETAK

Besteak beste, barne hartzen ditu Getxoko kultura-ondarearen balioak sakon ezagutzeko azterlanak (EAEko gainerako lurraldeetara hedatuta), baita balio kolektibo handiko baliabide gisa aintzatesteko herritarrak sozializatzeko eta sentsibilizatzeko ekintzak ere.

#### Jarduerak:

- a. **Hitzaldiak, ikastaroak, jardunaldiak edo beste edozein prestakuntza-jarduera** antolatzea, Getxoko ondare historiko-artistikoa ezagutu eta zabaltzeko, arreta berezia jarritz Punta Begoñari.

[3 eta 4 xedeak]

- b. EAEko kultura-ondarearekin lotutako **ikerketak eta prestakuntza-jarduerak** egitea.

[1, 3 eta 4 xedeak]

## 2 | GETXOKO ONDAREA KONTSERBATZEA

Getxoko ondarea zaharberritzera, sendotzera eta birgaitzera bideratutako azterlanak hartzen ditu kontuan, baita jarraitutako prozesua sozializatzeko ekintzak ere, ondarea eskuhartzeko eta berreskuratzeko eredu gisa izaera irekia, integrala eta eredugarria har dezan.

### Jarduerak:

- a. **Jarduketa- eta kudeaketa-gidalerroak onartzea eta garatzea**, bai Punta Begoña osorako, bai Getxoko udalerriko beste **ondare-elementu batzuetarako**, esku hartzeko tresna zehatzen bidez (plan zuzentzaileak edo maisu-planak), ikerketa-, esku-hartze- eta kudeaketa-ildo nagusiak ezartzeko.

*[1, 2, 3, 4 eta 5 xedeak]*

- b. Ondare historiko-artistikoa birgaitzeko, kontserbatzeko eta zaharberritzeko tekniken **azterketa- eta ikerketa-politikak garatzea**, Fundazioaren baitan ezagutza-altxor bat metatzeko, Fundaziotik kanpoko operadoreek beste leku batzuetan garatzen dituzten antzeko proiektuetara estrapolatu ahal izateko.

*[1, 2 eta 5 xedeak]*

- c. **Getxoko udalerriko ondare eta aberastasun historiko-artistikoaren aldeko jarduerak sustatzeko balio duten jarduerak** bultzatzea, arreta berezia jarriz Punta Begoña osoari.

*[1, 2 eta 3 xedeak]*

## 3 | KULTUR EKINTZA

Bere ondare-balioen arabera, lekuaren dinamizazio soziokulturalera bideratutako proiektuaren esparruan garatutako jarduera oro hartzen du.

### Jarduerak:

- a. Bultzatzea Punta Begoñako **ondare historiko artistikoaren erakusketa eta zabalkundea** sustatzeko **jarduerak**, gizartean, oro har, eta Getxoko eta eskualdeko herritarren artean, bereziki, baita haren gozamenerako sarbide unibertsala ere.

*[3 eta 4 xedeak]*

## 4| PROIEKTUAK GARATZEKO BULEGOA

Kontuan hartzen ditu proiektuen kontzeptualizazioa eta diseinua, eskuratutako ezagutza transferitzera, kultura-ondarearen eremuan esku hartzeko eta kudeatzeko eredia aplikatzera eta Fundazioaren funtzionamendurako funtsak erakartzera bideratutako proiektuak.

### Jarduerak:

- a. EAeko kultura-ondarearen eremuan beste erakunde edo pertsona fisiko edo juridiko batzuetatik jasotako **kudeaketa- eta garapen-jarduerak, -enkarguak edo -gomendioak.**

[4 eta 5 xedeak]

- b. **Patronatuak onartzen dituen programak zuzenean edo zeharka kudeatzea**, EAeko kultura-ondarearen eremuan.

[4 eta 5 xedeak]

## 5| ZERBITZU KOMUNAK

Fundazioak behar bezala funtzionatzeko beharrezkoak diren gainerako jarduerak hartzen ditu kontuan, besteak beste, Fundazioaren jardura administratu, komunikatu eta zabaltzeko lanak.

### Jarduerak:

- a. Punta Begoñako **kudeaketa-sistema orokorra finkatzea**, fundazioak kostu-, likidezia-, egonkortasun- eta segurtasun-baldintza onenetan jardun dezan.

[1, 2, 3, 4 eta 5 xedeak]

- b. Kontabilitate-, zerga-, lan- eta lege-arloetako prozedura operatiboak eta administratiboak etengabe berrikustea eta gainbegiratzea, eta **kudeaketa eraginkorragoa lortzeko prozedura berriak abian jartzea.**

[1, 2, 3, 4 eta 5 xedeak]

- c. 2023an eta hurrengo urteetan programa operatibo guztiak garatzeko **funtsak eta baliabideak biltzea eta kudeatzea.**

[1, 2, 3, 4 eta 5 xedeak]

- d. **Komunikazio-jarduerak zabaltzea**, Punta Begoña Fundazioaren ikusgarritasuna eta aitopren soziala hobetzeko, bai tokikoa, bai nazioartekoa.

[1, 2, 3, 4 eta 5 xedeak]

- e. **Fundazioaren jardueren etengabeko jarraipena egitea** patronatukideekin, eta urteko helburuak lortu diren baloratzea.

*[1, 2, 3, 4 eta 5 xedeak]*

- f. Fundazioaren martxa eta errendimendu hobean eragiten duten eta gizarte osoan inpaktua areagotzen duten **beste jarduera batzuk**, pertsoneri edo taldeari dagokienez.

*[1, 2, 3, 4 eta 5 xedeak]*

## BALIABIDE EKONOMIKOEN AURREIKUSPENA

### ERAKUNDEAK LORTU BEHARREKO DIRU-SARREREN AURREIKUSPENA

2026ko Jarduketa Plana garatzeko aurreikusitako diru-sarrerak taula honetan laburbiltzen dira:

#### DIRU-SARRERAK

1. jarduera	2. jarduera	3. jarduera	4. jarduera	5. jarduera	GUZTIZKOA
-------------	-------------	-------------	-------------	-------------	-----------

<b>1  PATRONATUKIDEEN EKARPENA FUNDAZIOARI</b>						<b>530.226,00</b>
1.1  Getxoko Udala	93.367,00	303.550,36	91.327,54	12.376,67	29.604,43	530.226,00
<b>2  DIRULAGUNTZAK</b>						<b>173.733,04</b>
2.1  Eusko Jaurjaritza	-	158.733,04	-	-	-	158.733,04
2.2  Bizkaiko Foru Aldundia eta beste erakunde publikoak eta/edo pribatuak	15.000,00	-	-	-	-	15.000,00
<b>3  ZERBITZUAK EMATEA</b>						<b>13.020,00</b>
3.1  Erakunde pribatuak	13.020,00	-	-	-	-	13.020,00
<b>4  LANKIDETZA-HITZARMENAK ETA BABESAK</b>						<b>-</b>
4.1  Erakunde publiko edo pribatuak	-	-	-	-	-	-
<b>5  BESTELAKO JARDUERA EKONOMIKOAK</b>						<b>9.822,00</b>
5.1  Sarrerak eta/edo beste jarduera ekonomiko batzuk kobratzea	9.822,00	-	-	-	-	9.822,00
<b>LORTU BEHARREKO BALIABIDE GUZTIEN AURREIKUSPENA</b>	<b>121.387,00</b>	<b>472.105,40</b>	<b>91.327,54</b>	<b>12.376,67</b>	<b>29.604,43</b>	<b>726.801,04</b>

1. jarduera: GETXOKO ONDAREAREN AZTERKETAK

2. jarduera: GETXOKO ONDAREA KONTSERBATZEA

3. jarduera: KULTUR EKINTZA

4. jarduera: PROIEKTUAK GARATZEKO BULEGOA

5. jarduera: ZERBITZU KOMUNAK

\* Hemen adierazitako zenbateko guztiak eurotan adierazten dira

## ERAKUNDEAK ERABILI BEHARREKO BALIABIDE EKONOMIKOEN AURREIKUSPENA

### GASTUAK

	1. jarduera	2. jarduera	3. jarduera	4. jarduera	5. jarduera	GUZTIRA
--	-------------	-------------	-------------	-------------	-------------	---------

<b>1  KAPITAL-AURREKONTUA</b>						
<b>1.1  INBERTSIOAK</b>	-	<b>130.000</b>	-	-	-	<b>130.000</b>
Lanak	-	130.000	-	-	-	-
Proiektuak idaztea	-	-	-	-	-	-
Ikerketa eta garapena	-	-	-	-	-	-
<b>2  USTIAPEN-AURREKONTUA</b>						
<b>2.1  ZUZKIDURAK</b>	<b>15.148,88</b>	<b>72.677,83</b>	<b>30.176,26</b>	<b>6.636,37</b>	<b>20.512,32</b>	<b>145.151,65</b>
Langileak	15.067,88	72.325,83	30.135,76	6.629,87	20.492,32	144.651,65
Finantzarioak	81,00	352,00	40,50	6,50	20,00	500,00
Zergak	-	-	-	-	-	-
<b>2.2  KANPO ZERBITZUAK</b>	<b>106.238,12</b>	<b>269.427,57</b>	<b>61.151,28</b>	<b>5.740,30</b>	<b>9.092,11</b>	<b>451.649,39</b>
Konponketak eta kontserbazioa	19.237,68	48.094,21	28.856,53	-	-	96.188,42
Profesional independenteen zerbitzuak	76.460,02	194.578,58	15.788,04	506,20	1.957,53	289.290,37
Garraioak	217,80	72,60	-	-	72,60	363,00
Aseguru-primak	-	880,00	-	-	-	880,00
Publizitatea, propaganda eta harreman publikoak	5.687,00	11.374,00	8.530,50	2.843,50	3.509,00	31.944,00
Hornidurak	675,20	1.688,00	1.012,80	-	-	3.376,00
Beste zerbitzu batzuk	3.960,42	12.740,18	6.963,42	2.390,60	3.552,98	29.607,60
<b>GASTUEN AURREIKUSPENA GUZTIRA</b>	<b>121.387,00</b>	<b>472.105,40</b>	<b>91.327,54</b>	<b>12.376,67</b>	<b>29.604,43</b>	<b>726.801,04</b>

\* Hemen adierazitako zenbateko guztiak eurotan adierazten dira

## 2026KO AURREKONTUAREN MEMORIA

### GASTUAK

#### GASTUAK. FUNTZIONAMENDU-ERAGIKETAK

ZUZKIDURAK | 145.151,65 €

Hona hemen ekitaldirako aurrekontuan sartutako gastuak:

- **Langileak:** sozietatearen zuzendaritza kudeatzailea eta lanaldi osoko administrari laguntzaile bati dagokion kostua, hau da, urtean 106.227,53 euroko soldata, Gizarte Segurantzaren 35.031,69 euroko eta 3.392,43 euroko ekarpena pentsio-sistema osagarrietarako.
- **Finantzarioak:** banku-gastu txikien kostua, guztira 500,00 eurokoa.
- **Zergak:** ez da aurreikusten kontzeptu horrengatik 2026. urtean.

KANPO ZERBITZUAK | 451.649,39 €

- **Konponketak eta kontserbazioa:** ekitaldiko gastu normaltzat hartzen da Fundazioak kudeatzen dituen monumentuen garbiketa orokorra eta landare-mantentzea, hau da, Punta Begoña Galeriak eta Galeako Itsasargia eta Gotorlekua. Guztira, 49.746,01 euro.

Gainera, Punta Begoña Galerietako higiene-, irisgarritasun-, segurtasun-, behe-tentsio- eta suteen aurkako babes-instalazioen mantentze-gastuak aurreikusten dira, 19.029,24 euroan. Era berean, monumentua zaharberritu bitartean berreskuratutako zeramikazko eta marmolezko materialak kontserbatu eta biltegitratzea, 4.428,60 euro.

Monumentuetan izandako kalteak konpontzeko gastuak ere sartzen dira, 22.984,57 euro.

- **Profesional independenteen zerbitzuak:** kontzeptu horrengatik aurrekontuan 38.938,36 euro sartu dira Punta Begoña Fundazioari lotutako zerbitzu juridikoengatik, teknikoengatik, fiskalengatik, lanekoengatik, kontabilitatekoengatik eta auditoretzagatik, gehi 400,00 euro gehiago erregistro-gastuengatik.

Era berean, Getxoko ondarea (zehazki, Punta Begoña Galeriak eta La Galeako Gotorlekua eta Itsasargia) berreskuratzekeo prozesuekin lotutako laguntza teknikoarekin erlazionatutako gastuak (arkitektonikoa, geoteknikoa, zaharberritzailea eta ondarezkoa, etab.) 77.563,05 euro.

Punta Begoña Galeriak gizarteratzeko kudeaketa logistikotik eta zerbitzuen garapenetik eratorritako gastuak ere sartzen ditu, bisita- eta musealizazio-ekintzen bidez, aurreikusitako esku-hartzeen aprobetxamendua eta zabalkundea dela eta, eta prozesuaren gardentasunaren alde, 91.814,80 euroko zenbatekoan.

Horri gehitu behar zaio Getxoko ondarearen balioak modu berritzailean sustatzeko eta zabaltzeko ekintzen garapenak eragindako gastuen aurreikuspena, Getxoko ondarearen inguruan gizartea sentsibilizatzeko eta Punta Begoñako fatxadaren bidez Getxoren hiri-irudia hobetzeko, 72.126,16 euroko zenbatekoa.

Azkenik, obren hurrengo faseko argazkien jarraipenetik eratorritako gastuak sartzen dira, prozesuaren gardentasunerako eta dokumentaziorako eta finantzaketa-erakundearen aurrean justifikatzeko (8.448,00 euro).

- **Garraioak:** mezularitzako bidalketa txikiak eta bestelako garraioak; guztira, 363,00 euro.
- **Aseguru-primak:** Punta Begoña Fundazioak kontratatutako 880,00 euroko hainbat aseguru dagokie.
- **Publizitatea, propaganda eta harreman publikoak:** Punta Begoña Fundazioak urte honetarako aurreikusitako jardueraren publizitate-, propaganda- eta zabalkunde-gastuak ondarearekin konprometitutako sareko komunitate bat sendotzeko eta Fundazioaren gardentasun- eta irisgarritasun-helburuak betetzeko 31.944,00 eurokoak dira.
- **Hornidurak:** kontzeptu horrekin pareka daitezkeen kostuak 3.376,00 eurokoak dira, monumentuko elektrizitate- eta ur- hornidurarako.
- **Beste zerbitzu batzuk:** Punta Begoña Fundazioaren ordezkariak garatzeko bidaia- eta dieta-gastuetatik eratorritako gastua da, baita prestakuntzatik eratorritakoa ere, aurtengo planifikazioaren arabera, 3.520,00 euroko zenbatekoa.

Horrez gain, bulegoko materialaren eta inprimakien 1.000,00 euroko gastuak sartzen dira, Punta Begoña Fundazioaren komunikazioetatik eratorritako gastuak, hala nola telefonoaren kontsumoa eta Interneterako sarbidea, web orriak eta espazio digitalak eguneratzea eta mantentzea, hostingak berritzea eta biltegiatze birtuala eta xede horietarako itzulpen puntualak, 22.147,60 euro.

Azkenik, hainbat gasturi dagozkien 2.940,00 euro.

## GASTUAK. FUNTSEN ERAGIKETAK

### INBERTSIOAK | 130.000,00 €

2026. urtean aurreikusita dago inbertsioak egitea, eskatutako dirulaguntzen emaitzen eta ebazpen-prozesuan daudenen arabera. Kontzeptu honetan gastu mota bakarra sartzen da:

- A. Punta Begoña Galeriak berreskuratzeko eta balioztatzeko obretatik eratorritakoak, guztira 130.000,00 euro.

**A|** Hemen aipatutako **obren** helburua da Punta Begoña Galeriak monumentuaren berreskuratze fisikoan, formalean eta funtzionalean aurrera egitea, honako ekintza hauen bidez:

- Punta Begoñako hego-mendebaldeko galeriaren lehen zatiko (jatorrizko pabiloia) estaldurak (sabaia, paramentuak eta zoladura) iragazgaizteko eta saneatzeko obra gauzatzea, osorik zaharberritzeko, monumentua erabiltzeko aukerak handitzeko eta Getxok kostaldean duen hiri-irudia hobetzeko.

Hemen adierazitako zenbatekoa obraren kostu osoaren zati bati dagokio. Eskatutako dirulaguntza ematen bada, baterako finantzaketa beharko da guztizko zenbatekora iristeko, baita zuzendaritza fakultatiboari, zuzendaritza betearazleari eta segurtasun- eta osasun-koordinazioari lotutako lanen finantzaketa osoa ere.

## GASTUEN AURREKONTUAREN LABURPENA

Gastuen koadroaren laburpena, lehen azaldutako partiden arabera, honako hau da:

FUNTZIONAMENDU-GASTUAK, GUZTIRA .....	596.801,04 €
FUNTS-ERAGIKETEN GASTUAK, GUZTIRA .....	130.000,00 €
<b>AURREKONTU-GASTUAK, GUZTIRA .....</b>	<b>726.801,04 €</b>

## DIRU-SARRERAK

### FUNTZIONAMENDUKO DIRU-SARRERAK

#### PATRONATUKIDEEN EKARPENA FUNDAZIOARI | 530.226,00 €

Getxoko Udalak Punta Begoña Fundazioari 530.226,04 euroko ekarpena egin dio, bere jarduera garatzeko.

#### DIRULAGUNTZAK | 173.733,04 €

EAEko kultura-ondarearen arloko programa zehatzak zuzenean edo zeharka kudeatzeko bazkide sortzaileek egiten dituzten ekarpenak sartzen dira hemen eta horiekin batera aurreikusitako dirulaguntza publiko eta pribatua.

Azken horien artean, Eusko Jaurlaritzak euskal kultura-ondarea zabaltzeko eta balioesteko programaren barruan 2024-2026 aldirako emandako dirulaguntza 28.733,04 eurokoa da 2026. urterako. Eusko Jaurlaritzaren laguntza-lerro berari 2025-2027 aldirako eskatutakoaz gain, 130.000,00 eurokoa.

Era berean, kontzeptu horretan sartzen dira Bizkaiko Foru Aldundiak eta beste erakunde publiko eta pribatu batzuek Punta Begoña Galerien monumentua gizarteratzeko, musealizatzeko eta digitalizatzeko egin ditzaketan ekarpenak, 15.000,00 euroko.

Bestalde, Punta Begoña Fundazioaren lanaren ondorioz aurrekontu horretatik kanpo geratu den arren, Etxebizitza eta Hiri Agenda Ministerioak 769.036,51 euro eman dizkio Getxoko Udalari. Diruz lagundutako proiektuaren ondoriozko obrekin lotuta daude aurrekontu honetako laguntza tekniko gisa jasotako gastuen zati bat.

#### LANKIDETZA HITZARMENAK ETA BABESLETZAK | 13.020,00 €

Partida honek barne hartzen ditu Punta Begoña Fundazioaren jarduerarekin lotutako erakunde pribatuekin Getxoko ondarea sustatzeko lankidetzak-hitzarmenak edo babes-akordioak formalizatzearen ondorioz lortutako diru-sarrerak, 13.020,00 eurokoak 2026. urterako.

#### BESTELAKO JARDUERA EKONOMIKOAK | 9.822,00 €

Hor sartzen dira fundazioaren helburuekin edo helburu osagarri edo osagarriekin lotutako beste jarduera ekonomiko batzuen garapenagatiko diru-sarrerak, horien artean, Punta Begoña Galerien sozializazioaren esparruan garatutako bisita edo tailerrenetatik sarrerak kobratzea, 9.822,00 euro.

## DIRU-SARREREN AURREKONTUAREN LABURPENA

Diru-sarreraren koadroaren laburpena, lehen azaldutako partiden arabera, honako hau da:

**AURREKONTU-SARRERAK, GUZTIRA .....726.801,04 €**

## AURREKONTUAREN EGOERA

Ondorioz, 726.801,04 euroko sarrerekin eta zenbateko bereko ustiapen-gastuekin, 2026. uterako aurreikusitako ustiapen-emaizta baliogabea da.

## 2026RAKO AURREIKUSITAKO EMAITZEN KONTUA

Jarraian, 2026rako emaitzen kontuaren aurreikuspena aurkezten da.

2026ko EKITALDIRAKO AURREIKUSITAKO EMAITZEN KONTUA  
(eurotan adierazita)

	2026	2025
1  Negozio-zifraren zenbateko garbia	9.822	24.342
5  Ustiapenerako dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak	586.979	633.891
6  Langile-gastuak	-144.652	140.440
7  Ustiapenerako beste gastu batzuk	-451.649	517.095
8  Ibilgetuaren amortizazioa	0	0
11  Ibilgetua besterentzeagatik hondamena eta emaitza	0	0
<b>A) USTIAPENAREN EMAITZA</b> (1+2+3+4+5+6+7+8+9+10+11)	<b>500</b>	<b>698</b>
12  Finantza-sarrerak	0	0
13  Finantza-gastuak	-500	-698
<b>B) FINANTZA-EMAITZA</b> (12+13+14+15+16)	<b>-500</b>	<b>-698</b>
<b>C) ZERGEN AURREKO EMAITZAK</b> (A+B)	<b>0</b>	<b>0</b>
17  Mozkinen gaineko zergak	0	0
<b>D) EKITALDIKO EMAITZA</b> (C+17)	<b>0</b>	<b>0</b>

## 2026RAKO AURREIKUSITAKO EGOERAREN BALANTZEA

Jarraian, 2026rako aurreikusitako egoeraren balantzea aurkezten da.

AKTIBO	2026	2025
<b>A  AKTIBO EZ-KORRENTEA</b>	<b>5.255.863</b>	<b>5.220.863</b>
II. Ibilgetu ez-materiala	5.255.863	5.220.863
V. Epe luzeko inbertsio finantzarioak	0	0
VI. Zerga geroratuen aktiboak	0	0

ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	2026	2025
<b>A  ONDARE GARBIA</b>	<b>5.285.838</b>	<b>5.250.838</b>
<b>A-1  Funts propioak</b>	29.975	29.975
I. Fundazioaren zuzkidura	30.000	30.000
II. Galdatu gabeko ordainketengatiko sortzaileak	0	0
III. Erreserbak	0	0
IV. Aurreko ekitaldietako emaitzak	-25	-25
VII. Ekitaldiaren emaitza	0	0
<b>A-3  Jasotako dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak</b>	5.255.863	5.220.863

B   PASIBO EZ-ARRUNTA	0	0
II. Epe luzeko bestelako zorrak	0	0
IV. Zerga geroratuen pasiboak	0	0

B  ACTIBO ARRUNTA	129.975	129.975
III. Zordun komertzialak eta kobratu beharreko beste kontu batzuk	0	0
3. Beste zordun batzuk	0	0
VII. Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak	129.975	129.975

C  PASIBO ARRUNTA	100.000	100.000
V. Hartzekodun komertzialak eta ordaindu beharreko beste kontu batzuk	100.000	100.000
1. Hornitzaileak	30.000	30.000
2. Bestelako hartzekodunak	70.000	70.000

<b>AKTIBO GUZTIRA (A+B)</b>	<b>5.385.838</b>	<b>5.350.838</b>
-----------------------------	------------------	------------------

<b>ONDARE GARBIA ETA PASIBO GUZTIRA (A+B+C)</b>	<b>5.385.838</b>	<b>5.350.838</b>
---	------------------	------------------



---

Fundación Punta Begoña Fundazioa  
Foruak, 1  
48992 | Getxo | Bizkaia



---

T. 944 660 068



---

[info@puntabegonagetxo.eus](mailto:info@puntabegonagetxo.eus)  
[www.puntabegonagetxo.eus](http://www.puntabegonagetxo.eus)